

Orreagako Guduaren urteurrenean Baskoien garaipena gogora ekarri dute

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 15/08/2023

Euskaldunen askatasuna berreskuratzeko bidean estatu independente baten beharra aldarrikatu dute.

Gaur 200 pertsona inguru elkartu dira Orreagan, Baskoien garaipena Karlomagnoren ejerzitoaren kontra gogora ekartzeko. Orreaga fundazioak antolatutako ekitaldia goizeko 12:00etan hasi da non partaideak Orreagako guduaren monumentuan elkartu dira. Han komunikatu bat irakurri dute eta historiagile bati heman diote hitza nork besteen artean hainbat historiagileen manipulazioak salatu dituzte, izan ere, hauek euskaldunak beste herri batzuekin nahasten dituzte beren nazio izaera ukatuz honen arabera. Geroago auresku bat dantzatu da eta bere bizitza euskaldunon askatasunaren alde heman zutenei lore eskaintza egin zaie.

Segidan hau bukatutzat hemanda Ibañetara igo da jendea, Erroldan ohorean erakitako monumentoa inguratuz. Orreaga Fundazioak gogor kritikatu du monumento hori hor egoteak beraien arabera Errolan akatua izan zen “tirano eta inperialista” bat izateagatik eta euskaldunei egindako guztia gogora ekarri dute, era berean monumento hori handik kentzeko pausuak hematen jarraituko dutela esan dute. Hala ere ez diote bakarrik iraganaz hitz egin izan ere gaur egun euskaldunak askatasuna lortzeko bidean berriz ere estatu independente baten beharra seinalatu dute, era berean euskararen ofizialtasuna eskatu dute eta bukatzeko euskal preso politikoen askatasuna exijitu dute, beraien gabe ez delako askatasuna lortuko adieraziz.

Ekimen historikoen kronika:

Mendebaldeko Erromatar Inperioa erori ondoren, Frantzia eta Mendebaldeko Europaren zati handi bat gobernatzen zituen karolingiar dinastia gailendu zen. Bere helburuetako bat Europaren batasuna lortzea zen. Dinastia horretako errege ospetsu eta boteretsuena Karlomagno izan zen. Bere erregealdia hasi baino urte batzuk lehenago, 711n, musulmanak penintsulan sartu ziren, eta bisigodoak eraitsi ondoren, ia penintsula oso bereganatu zuten, erresistentzia handia erakutsi zuten iparraldeko lurralde guñe txiki batzuk izan ezik.

777an, penintsulako ipar aldeko gobernadorea zen Sulayman Ibn Yaqzanek babesa eskatu zion Karlomagnori, Cordobako emirra zen Abderraman I.ak ezarri zien zapalkuntzaren aurrean.

Karlomagnok bere lurraldeak zabaltzeko eta Ebroko harana menderatzeko aukera ikusi zuen orduan. Gainera, musulmanekin zegoen muga, Pirinioak baino haratago ezartzeko aukera zegoen. Horretarako, 778ko udaberrian bi zutabetan banatutako gudaroste handi bat martxan jarri zuen, Pirinioak zeharkatu zituen, eta gaur egungo Zaragoza den hiri

musulmana bereganatzen saiatu zen. Bertako hiritarrak, Sulayman gobernadorearen iritzia kontra jarritz, ez ziren makurtu, eta hasieran erraza izango zen ekintza militarra korapilatu egin zen.

Hiriaren setioa luzea eta zaila izango zela aurreikusi zuen. Gainera, bere erresumako ipar aldean saxoien matxinada hasi zen. Bere nahien kontra, itzuli egin behar izan zuen. Espedizioak setioa altxatu eta itzulera hasi zuen. Tropa oso desmoralizatuta zegoen.

Iruñetik igarotzean, Frantziako bidean azken gotorlekua zena, matxinadak saihesteko eta bere agintepean jartzeko, Karlomagnok hiria suntsitzea agindu zuen. Erretiratzen ari zen armada presarekin zijoanez, kalteak arrakalak irekitzean eta elementu esanguratsuenak ezabatzean zetzan, horiek nahikoak baitziren hiriaren defentsa-gaitasuna baliogabetzeko. Euskaldunak asko haserretu ziren ekintza horrekin.

Armada karolinjioa Iruñetik abiatu zen bi gorputzetan, egun bateko edo biko distantziaz bananduta, ura eta hornidura bermatzeko. Lehena, ugariena, Karlomagnok zuzendua; eta bigarrena, apur bat motelagoa, atzeguardia, Roldanek gidatua. 778ko abuztuaren 15ean, abangoardiak Pirinioak zeharkatu zituen Orreagatik. Atzeguardia menditar baskoiek erasotu zuten, zeinek, harri duraz, posizio estrategikoaz eta indarren arintasunaz baliatuz, sekulako hondamena eragin zieten. Atzeguardia osoa suntsitu zuten, eta Roldan hil zuten. Erasotzaileek ahal zuten guztia arpilatu, eta azkar sakabanatu ziren mendikateko baso itxietan zehar. Porrota erabatekoa zen. Aurretik zijoan armada atzeguardiari laguntzera itzuli zenean, hilotzak besterik ez zituen aurkitu, eta mendekua hartzeko etsaiaren arrastorik ez zegoen.

Gertaera historiko horretan oinarrituta idatzi zuten Roldanen abestia. Europako hizkuntza erromantzean idatzitako lehen gesta-kanta da. Orreagan gertatutakoa kontatzen du edertasun literario handiarekin, baina zorrotasun historikorik gabe. Baskoien aurkako porrota izan zena, Roldan sarrazeno multzo baten aurrean adorez erortzen den Erdi Aroko heroi modura agertzen du. Orreagako bataila bertso bihurtua, ahozko tradizioaren bidez transmititzen da juglareen bidez, plazetan, ebakiduretan eta merkatuetan abestua.

<https://eh.lahaine.org/orreagako-guduaren-urteurrenean-baskoien-garaipena>